

# Nafarroako Gobernuaren kultura egitaraua datorren asterako

## KONFERENTZIAK

### ["Oraindik ere, Freud-en inguruko irakurketa filosofikoa"](#)

**Nafarroako Liburutegia. Proiekzio Aretoa**

**Astelehena | 19.00etan**

Zikloa: Orain pentsatu, mundua pentsatu

Hizlaria: José Luis Villacañas

Hitzaldia: "Oraindik ere, Freud-en inguruko irakurketa filosofikoa"

### [Liburu aurkezpena](#)

**Nafarroako Liburutegia. 1. Solairu Aretoa**

**Astearte | 11.00etan**

César Oroz-en liburu berriaren aurkezpena: "Lo que diga Shakespeare:

Navarreando por la literatura universal".

Sarrera doan eserlekuak agortu arte.

### [Familia harremanak: memoriak, egunerokoak, eskutitzak](#)

**Nafarroako Liburutegia. 1. Solairu Aretoa**

**Astearte | 17.30etan**

Hizlaria: Ernesto Maruri

Izenburua: "Familia harremanak: memoriak, egunerokoak, eskutitzak"

Sarrera doan eserlekuak agortu arte.

### [TEKNOLOGIA ETA MUSIKA: Teknologia arte modu berri bat al da?](#)

**Nafarroako Errege Artxibo Nagusia**

**"Zientzien Hotsak" zikloa**

Asteazkena | 19.00etan

Hizlaria: Julián Ávila

Gaur egun, Konposizio Elektroakustikoko saileko eta Musikaren Teknologiako irakaslea eta nagusia da Gaztela-Mantxako Goi-Mailako Musika Kontserbatorian. Halaber Madrilgo

Unibertsitate Politeknikoan Arte Galkorreko Master-ean irakasle gonbidatua da ere bai. Manchesterreko Unibertsitateko NOVARS ikerketa-zentroko alboko irakaslea izan da, no berriki bere doktoretza-tesia aurkeztu duen.

### [Sola, Armendáriz, Osés baxenabarreko herentzia abizenetan](#)

**Nafarroako Errege Artxibo Nagusia (Areto Nagusia)**

**Osteguna | 19.00etan**

XVI. eta XVII. mendean bizi ziren migrazio prozesuen ondorioz Baxenabarretik eta inguruko eskualdeetatik datozen eta gaur egun Nafarroan aurki daitezkeen abizenen inguruko hitzaldia eskainiko du Peio Monteano Sorbetek. Hizlaria Nafarroako Unibertsitate Publikoan historia doktoretza egin zuen 1998. urtean.

## ANTZERKIA

### [El hombre cigüeña](#)

**Baluartea (Ganbera Aretoa)**

**Titiriteros de Binéfar**

**Larunbata | 17.00etan**

El hombre cigüeña animalien ipuin bat da, egun gizakiak naturarekin duen harremanaren gaineko gogoeta egiten duena. Titiriteros de Binéfar taldearen ikuskari honetan, agertokian, erratzen makilak, tamaina guztietako ur botilak, iragazkiak edo zurezko koilarak ikusiko dira, mota guztietako pertsonaia bihurtuta. Gidoia eta zuzendaritza: Paco Paricio

## KONTZERTUAK

### [Nafarroako Orkestra Sinfonikoa](#)

**Baluartea (Aretoa Nagusia)**

**Ostegun eta ostirala | 20:00h**

4. Kontzertua. NOS Denboraldia 'Eraikitzen'

Zuzendaria: Juanjo Mena

Nafarroako Orkestra Sinfonikoa, Araba Abesbatza

Juanjo Menaren bisita jasotzea munta handiko gertakaria da beti

Orkestrarentzat. Araba Abesbatzak lagunduta etorriko zaigu, talde horren berrogeita hamargarren urteurrenean, Francisco Ibáñez Iribarria (Oion, 1951) musikari arabarraren lan bat aurkezteko.

### [Wolcum yule](#)

**2018/11/25 | 19.00etan**

Sarrera: 6 euro

Ahots berdinen emakumezkoen abesbatza. Alicia Griffiths, harpa. Beatriz Aguirre, zuzendaria

## ZINEMA

### [El puente sobre el río Kwai](#)

**Nafarroako Fílmoteka**

**Asteartea | 19.30etan**

Munduko Bigarren Gudan zehar (1939-tik 1945-era), Britainiar preso talde bat behartua izan da zubi bat eraikitzen. Zuzendaria: David Lean

### [Vaya](#)

**Ostirala | 20.00etan**

KwaZulu-Natal-tik Johannesburgo-ra tren bat ailegatzen da hiru bidaiariekin. Ustelkeriaz betetako Mega-hiri honetan bizitako pasarteek behartzen dituzte gure protagonistak bizitzan izan behar duten jarrera eraikitzen. Zuzendaria: Akin Omotoso

## BESTELAKOAK

### [948 Merkatua, Nafarroako arteen merkatua](#)

**Iruñea**

**2018/11/21 - 2018/11/23**

Civivox Condestable, Baluarte, Ziadadela, Nafarroako Museoa, NAE, Zentral Aretoa, Nafarroako Filmoteka, Nafarroako Unibertsitatea Museoa, Gaztelu plaza, Joaquín Maya Musika Eskola, Oteiza Museoa, Indara Aretoa, Huarte Zentroa, Civican, Civivox Iturrama, Sarasate Pasealekua eta Iruñeko kaleak.

948 Merkatua-k eskaintza anitza prestatu du. Hamar proiektzio eskainiko dira Nafarroako Filmotekan; beste horren beste dantza, antzerki eta zirko proposamen luzatuko dira hainbat aretotan; 35 kontzertu emango dira hiriko hamaika eszenatokitan; eta ikus-entzunezko zein arte plastikoaren eskaintza zabala aurkeztuko da ere bai. Egitarauaren xehetasun guztiak ezagutzeko sakatu hemen: <http://www.948merkatua.com/eu>

### [Sakanako Liburutegiak](#)

**2018/11/05 - 2018/11/30**

Ziordia, Olazti, Altsasu / Alsasua, Urdian, Etxarri Aranatz / Echarri Aranaz, Arbizu e Irurtzun.

Sakanako liburutegiak elkartu egin dira bailarako paisai eta baso ondarea goraiatzeko. Nahi honen harira, hamaika proposamen prestatu egin dira ingurua hobeto ezagutzeko. Hala nola, erakusketak, zinema, topaketa literarioak, poesia, tailerrak, etab. Egitarau osoa esteka honetan bisita daiteke: <http://www.culturavarra.es/uploads/files/sakana2018.pdf>

## LANTEGIAK

### [Laborategien azalpen teknikoa](#)

**Huarte Zentroa**

**Astelehena | 16.00etan**

Uharte Zentroko laborategietako baliabideak erabiltzen ikasteko oinarrizko lantegiak eginen dira dohainik. Hilabeteko 15aren hurrengo astelehenean izan ohi dira, hurrengo, azaroaren 19an, arratsaldeko 16:00etan izango da.

### [Ongietorri ipuinetara](#)

**Nafarroako Liburutegia**

**Asteazkena | 18.00etan**

Asteazkenero, gurasoek eta beste boluntario batzuek ipuinak irakurtzen dizkiete hurrei gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez.

### [Sol y sombra](#)

**19/10/2018 - 02/12/2018**

Sortzaileak: Beatriz Sánchez eta Iñigo Cabezafuego

Sol y sombra aurkakoak diren elementuz osatutako edabe hordigarria da, zeinetan baikortasun dosi adina zirikatze eransten den. Emaitza eztenkada galanta da, edari honi ematen zaion izen peto-petoaren berdina.

## **ERAKUSKETAK**

### **[Karlismoa zineman](#)**

#### **Karlismoaren Museoa (Estella-Lizarra)**

**2018/11/14 - 2019/04/28**

Ordutegia: larunbata 10:00h - 14:00h y 16:00h a 19:00h | igande eta jai egunak 11:00h - 14:00h

Gaur hasita eta apirilaren 28rarte Lizarrako Karlismoaren Museoa erakusketa berri bat edukiko du ikusgai: "Karlismoa zineman". Eneko Tuduri historiagilea izan da proposamen honen komisarioa. Erakusketa sei esparrutan dago banatuta eta karlismoaren urteetan girotuta dauden edota XIX.

### **[Izaba NANen](#)**

**2018/11/06 - 2018/11/30**

Nafarroako Errege Artxibo Nagusiak Izaba herriari buruzko agirien aukeraketa zabala prestatu du azaroko mikroerakusketarako. Sarrera librea eta doakoa da eta hauexek dira bisita-ordutegiak: 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara asteko egun guztietan, asteburuak eta jai-egunak barne, eta asteazkenetan, 10:00etatik 20:00etara bitartean.

### **[Baxenabarre, lurralde berezia/ Basse Navarre](#)**

#### **Nafarroako Errege Artxibo Nagusia (Areto Nagusia)**

**2018/10/10 - 2019/01/13**

Susana Herreros Lopetegik komisariatutako erakusketa hau bi zatitan taldekatutako

16 beira-arasez osatuta dago, eta horietan, esparru txiki eta estrategiko horren bilakaera jarri dute ikusgai, jatorrietatik Frantziako Iraultzaren (1789) ondorioz erresuma bezala desagertu zen arte.

### **[Macla, mamua, bismuto, vicario](#)**

#### **Oteiza Museoa**

**2018/07/27 - 2018/11/30**

Oteiza Museoaren produkzioa, Huarte Arte Garaikideko Zentroaren partaidetza. Lankideak: "la Caixa" Fundazioa, Nafarroako Kutxa Fundazioa, Eguesibarko Udala eta Caniche Argitaletxea. Oteiza Museoak "Macla, mamua, bismuto, vicario" erakusketa proiektua aurkezten du. Oteizaren obrari buruzko erakusketa interbentzio hau Karlos Martínez B. eta Javier Arbizu artistek berariaz ondu dute Altzuzako zentrorako eta Hazitegia programako lehen interbentzioa izango da.

### **[Work in Process](#)**

## **Huarte Zentroa**

**2018/10/31 - 2018/12/09**

Artista: Collaborative Arts Partnership Programme

COLLABORATIVE ARTS PARTNERSHIP PROGRAMME (CAPP) Europako praktika artistiko kolaboratiboen inguruko ikerketa eta hedapenean inguruan dlanean diarduten bederatzi kultura instituziok osaturiko sarea da. Erakusketa honetan, azken hiru urte hauetan CAPP-en testuinguruan egidako proiektu desberdinen prozesu eta emaitzak elkarbanatzen dira.

## **[Dora Salazar. Inspiración. Espiración. Expiación](#)**

**Nafarroako Museoa (kapera)**

**2018/10/26 - 2019/03/24**

Dora Salazar (Altsasu, 1963) Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederren fakultatean ikasitako artista plastikoa da. 1985ean bere lehenengo erakusketak eskaini zituenetik, etengabe agertu da bilduma pribatuetan eta publikoetan.

## **BISITAK ETA IBILALDIAK**

### **[Iruñeko Katedraleko klaustroaren lanak](#)**

**Iruñeko Katedrala**

**Igandea. 10.00etan, 11.00etan, 12.00etan**

Bisitak doakoak dira, eta hiru ordu hauetan egiten dira: 10:00, 11:00 eta 12:00etan.

Ordubeteko iraupena dute, gutxi gorabehera. 14 urtetik gorakoak izan behar dute bisitariak, eta mugikortasun-arazorik ez izan. Oinetako lau eta erosoak eraman beharko dituzte, obrako aldamiotik ibili beharko baitute.